

## Aitatxiren harpea

Xan Errotabehere-k idatzia eta kontatua

Hau da aitatxik, gure haur denboran, kontaktzen zigun istorioetarik bat. Itsua zen eta supazterrean, gaztainak paderan erretzen zituen bitartean istorioak kontaktzen zizkigun. Guk, haurrek, ez genion kasu handirik egiten. Nahiago genuen gure artean jostatu.

Baina memoriaaren zoko-mokoetan gelditu zaizkidan mutur batzuen laguntzarekin, paderaren kurrinkarekin, horrelaxe hasiko zen:

“Haurtxoak, Zuen etxetik hurbil baduzue harpe bat, barne ilun bat. Zuek uste baino hurbilago duzue. Baina harat heltzea biziki zaila da. Maiz, bizi oso baten bidea izanen duzue.

Eta harpe ilun horretan bada andere gazte bat. LAMINA. Andere lamina, anitz urte izana gatik, gaztea da, lamina guziak bezala urteak joan ahala gaztetzen da. Beraz, gure lamina gaztaroaren lorean da.

Andere lamina ehuntzen ari da”. Kolore guzietako hariak ehunduz, oihal ezin ederrago baten osatzen ari da. Oihala, hain segur, atorra eder bat izanen da.

Oihalaren ederra ikus daiteke zeren, ehundegitik libratu ondoren, laminak oihala lurrean pausatu du. Lana kasik bukatua du, azpildura jostea besterik ez zaio gelditzen. Zoritxarrez, oihala lurrean hedatua uztera behartua da, ez duelako aski ikusten.

Zergatik ? Harpe erdian dagoen sua itzaltzen ari delako. Su honek laminaren adin ber-bera du. Erran nahi du sua, bere zaharrean, gaztea dela. Harpe zolan, errekatxoan entzuten den ur bizia, sua bezala, beti berria da ere.

Suaren gainean dagoen pertzan, ura berotzen ari da. Uretan, haziak eta ernamuinak saltsan daude berotzen. Soilik berotzen, ez irakitzen. Haziak berotu eta laminak erre kara isuriko ditu eta handik kanpora jalgiz geroz, bazterretan hozituko dira.

Beraz, lamina, oraingoz , kanpoan da, egur biltzen ari.

Anartean, harpeko harkaitzetan dagoen belea, txistu bizian jautsi eta, oihalaria mokoz eta aztaparrez lotu zaio eta erabat urraturik, zirtzikaturik, hari guziak barreiatu uzten ditu.

Bere aldetik, laminak, sua akuilatu eta pertza urez bete ondoren, haziak barnera bota ditu.

Azkenik, bere atorraren lanera itzultzen denean, ikusten ditu, hariak barreiatuak, oihalkia zirtzikatua. Eta hor, denbora luzez beha, bihozgabetua, etsitua, egoten da...

Horrela, ezindua egonik, berriz hasten da hariak banan-banan biltzen. Bildu eta ehundegian lotzen, kolore guzietako hari berriak tartekatzen.


Ehuntzen ari delarik, gogora jiten zaio diseinu, marrazki, berri eder baten irudia. Sekulan irudikatu duen ederrena. Diseinu honek ematen dio pindar, indar eta oldar. Bihotza hasten zaio taupaka, gorputz guzia daldaran. Eta orain, haia-haia, ari da ehuntzen, lehia berri batekin ...”

Haurra ez dira kontent :

- Aitatxi, aski ! Noiz janen ditugu gaztainak ? Zure bele hori ez dugu batere maite. Gaztainak erreak dira.

- Ez ez ! Haurtxoak! Pixka bat entzun nauzue, baina, badakit zer pentsatzen duzuen. Nahi duzue belea madarikatu. Ez eta ez! Belea bere lana egiten du.

Egiaz, bizidun guziak sortzen gira, bizitzen eta hiltzen – sortzen, bizitzen, hiltzen – Beraz laminarekin sortzen eta belearekin hiltzen.



Baina, lasai, landarea hiltzen denean, berak eman duen hazia jadanik ari da kimutzen, pusatzen.

Laminak Atorraren oihala ehuntzen duen bezala biziaren muina ehuntzen du ere.

Ez duzue ikusten baina, Larrosa-landarearen adar puntako begian, lamina ari da ernamuina sortzen.

Ardi amaren ume-untzian ere, lamina ari da bildotsaren biziaren ehuntzen. Eta gu jendeetan berdin.

Pertsona bakoitza beste atorra eder bat da laminak amultsuki hari finez, kolorezko piruz ehundua, josia. Gutarteko bakoitza bere ezdeusean, bere handi-mandian bezala, ezin ederragoa da.

Nehor ez da beste baten idurikoa. Hori dugu, guk, jendeen arteko magiarik handiena : bakoitza arraroa dela gorputzean bezala jitean ere.”

- Aski, Aitatxi ! Gaztainak erreak dira, zapartatzen ari dira, goseak gaude.

Eta aitatxik, trapu batekin, haztamuka padera ireki bitartean, segitzen zuen :

- Haurtxoak ... Ez zaitez tuela harpeko ilunbearen beldur izan.

Negu beltz-hotzak beti sortuko du udaberriaren argi berria. Gauak beti egun berria dakar. Amak, bere denbora kunplitzean, ume-untzi ilunean duen ñiña argitara emanen du.

Lurpean ereinik dagoen haziak lur-azal beltza urratuko du eta hozituko da, kimutuko.

Egiaz, harpe zilo beltzetik dator ... ur bizia ... bizia... bizi ezin baliosago ... zuena.